

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

R 7/2015 Ebazpena

16/2012 Espedientea

Gasteizen, 2015eko maiatzaren 4ean

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundia Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala zehaztea da (IFZ: ----) (aurrerantzean, erakundea edo sozietatea), 2006ko otsailaren 6an sortu zenetik. Gatazka Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen da 16/2012 espediente-zenbakiarekin, Isaac Merino Jara jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak 2012ko maiatzaren 23an prestatutako idazkiaren bidez aurkeztu zen; hori hurrengo 25ean sartu zen Arbitraje Batzordean. Idazki horretan jakinarazten da, 2012ko apirilaren 23an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak Arbitraje Batzordearen aurrean ebazpen honen idazpuruan adierazitako gaiari buruzko gatazka aurkezteko hitzarmena hartu zuela. Aipatutako idazkiarekin batera, oinarritzat hartzen dituen Ikuskaritza Zerbitzuaren txostenak eta aurreko espedienteak eransten dira. Proposamenak adierazi bezala, horietatik ateratzen dira erreklamazioaren oinarri diren aurrekariak eta arrazoibideak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

2. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- 2006ko urtarrilaren 13an, 1. ERAKUNDEAREN fundazio-eskritura eman zen Bilbon (kide fundatzaileek erabat harpidetutako kapitalarekin: 1. KIDE FUNDATZAILE JAUNA eta 2. KIDE FUNDATZAILE JAUNA). Erakundeak 1. HELBIDEAN, 1. UDALERRIAN (Burgos) ezarri zuen bere egoitza soziala.

- 2006ko urtarrilaren 24an, sozietateak Burgoseko Ogasun Ordezkaritzan aurkeztu zuen errolda-aitorpena, IFZ aldi baterako eskatzeko 036 eredia, bertan, 1. HELBIDEA, 1. UDALERRIA (Burgos) ezarrita, helbide fiskal gisa. 2006ko abuztuaren 4an, 036 eredia aurkeztu zuen Ordezkaritza berean, behin betiko IFZ eskatuz.

- 2006ko otsailaren 6an, kide fundatzaileek 1. ERAKUNDEAREN partizipazio guztien salmentaren eskritura publikoa ematen dute. Erosleak honako hauek dira: 1. EROSLE JAUNA, 2. EROSLE JAUNA, 3. EROSLE ANDREA, 4. EROSLE JAUNA eta 5. EROSLE JAUNA.

- 2006ko otsailaren 6an bertan, egun berean, 1. UDALERRIKO (Burgos) egoitza sozialean egindako erakundearen Batzar Unibertsalak hartutako hitzarmen sozialak eskritura publikoan aurkezten dira. Sozietatearen akten liburuan jasotako hitzarmen horiek 1. EROSLE JAUNAK ziurtatzen ditu, 1. ERAKUNDEAREN administratzaile solidario bezala, 2. eta 4. EROSLE JAUNEKIN batera izendatua.

- Sozietatearen inskripzioa zein administrazio-aldaketa Burgoseko Merkataritza Erregistroan erregistratu ziren, 2006ko otsailaren 21ean eta martxoaren 14an, hurrenez hurren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2006ko ekitalditik 2011ra, erakundeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Burgoseko egoitzan aurkeztu ditu BEZ aitortpenak eta Sozietateen Gaineko Zerga, ekitaldi guztietan, Estatuari dagokion % 100eko tributazio-ehunekoa aitortuta.

- 2011ko irailaren 5ean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jakinarazi zion erakundeari 2007ko, 2008ko eta 2009ko sozietateen gaineko zergaren inguruko zerga-betebeharrari buruzko egiaztapen mugatuko hiru prozedura hasiko zirela, likidazio-proposamenen bidez, alegazio-izapideak emanda. Proposamen horiek 2. UDALERRIKO 2. HELBIDEAN (Bizkaia) kokaturako 1. EROSLE JAUNAREN helbidean jakinarazi ziren, eta horrek alegazioak aurkeztu zituen 2011ko irailaren 16an. 2011ko azaroaren 6an, hurrengo behin-behineko likidazioak jakinarazi ziren telematikoki. Horietatik 1. ZENBATEKOA, 2. ZENBATEKOA eta 3. ZENBATEKOA euroko kopuruak ateratzen ziren ordaintzera; izan ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, aldi horietan, erakundeak ez zuen tamaina murriztuko enpresaren kontsiderazioa.

- 2011ko azaroaren 30ean, aurreko eguneko data zuen idazkia aurkeztu zuen erakundeak Bizkaiko Foru Ogasunean. Bertan, helbide fiskalaren aldaketa eskatzen zuen, atzeraeraginezko ondorioekin, 2007ko ekitalditik aurrera eta hori barne; izan ere, hori preskribatu gabeko azken ekitaldia da, zergapeko berak adierazi bezala, bere helbidea sozietateko administratzailearen bulegoetan kokatua dagoela eta egon dela deritzolako. Bulego horiek 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN daude kokatuta (Bizkaia). Espedientean, erakundeko ordezkariaren 2011ko azaroaren 29ko idazkia agertzen da (hori hurrengo egunean erregistratu zen Bizkaiko Foru Aldundian). Bertan, honako hau adierazten du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- Lehena.- «Azken ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren aitortpeni aplikagarria den tributu-legeriaren ezjakintasuna dela eta, 1. HELBIDEAN, 1. UDALERRIAN (Burgos) egoitza SOZIALA duen 1. ERAKUNDEA sozietateak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Burgoseko Ordezkaritzan tributatu duela kontzeptu horrengatik, horren ordainarazpena Bizkaiko Foru Ogasunari zegokionean, horren helbide FISKALA azken lurralde horretan kokatzeagatik, baldintza horrek ere balio erantsiaren gaineko zergarako dituen inplikazioekin.
- Bigarrena.- Alde horretatik, adierazten dela, 2007ko ekitalditik, hori barne (preskripziorako, lau urteko aldian sartzen ez den azkena), pertsona juridikoen helbide FISKALA zehazteko, aurreko azalpenean adierazitako 12/2002 Legearen 43. artikuluan Lau b) atalean xedatutakoaren arabera, aipatutako sozietateak bere negozioen zuzendaritza eta kudeaketa administratiboa Bizkaiko Lurralde Historikoan duela zentralizatuta, besteak beste, ordudanik, aipatutako probintzian dagoelako kokatuta 1. ERAKUNDEKO administratzaile guztien egoitza fiskala (zehazki, 1. EROSLEA (NAN ----), 2. EROSLEA (NAN ----) eta 4. EROSLEA (NAN ----)), bai eta 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN kokatutako higiezia. Bertan gauzatzen da horren kontularitza, banku- zein tributu-kudeaketa, etab.
- Hirugarrena.- Aurreko guztia dela eta, sozietateen gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga jadanik sortu diren 2007ko, 2008ko, 2009ko eta 2010eko ekitaldietarako, uste dela ARBITRAJE BATZORDEARI dagokiola 1. ERAKUNDEAREN helbide FISKALAREN konexio-puntuaren inguruan izan litekeen edonolako desadostasun konpontzea.»

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2011ko abenduaren 5ean, erakundeak zegozkion berraztertze errekurtsoak aurkeztu zituen aipaturako behin-behineko likidazioetarako. Horietan, besteak beste, adierazten du Bizkaiko Foru Ogasunak presaturako helbidea aldatzeko espedientearen berri izan duela.

- 2012ko urtarrilaren 18an, sozietateak Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatu zuen erakundearen egoitza sozialaren aldaketa, 1. HELBIDETIK, 1. UDALERRIAN (Burgos), 3. UDALERRIKO 3. HELBIDERA (Bizkaia).

- Erakundearen idazkia jaso ondoren, Foru Ogasunak informazioa lortzeko jardura jakin batzuk gauzatu zituen. Horietatik, 2012ko urtarrilaren 19ko agente fiskalaren txostena ondorioztatu zen, agente fiskal berak 2012ko urtarrilaren 13an eta 19an sinaturako bi eginbideetan oinarritutakoa. Agente fiskalak sinatzeaz gain, lehenengoa 1. EROSLE JAUNAK eta bigarrena 1. ORDEZKARI ANDREAK ere sinatu dituzte.

- 2012ko urtarrilaren 13ko eginbidean, honako hau adierazten da:

«Sozietateak higiezin jardura gauzatu zuela, 2006an 4. UDALERRIAN (ARABA) lursaila erosita, eta 2007ko ekitaldian hori salduta (...), eta geldirik egon zela, orain finantza-jardura gauzatu arte.

Enpresa hori 1. KIDE FUNDATZAILEARI erosi zitzaioela, bai eta 1. HELBIDEAN, 1. UDALERRIAN (Burgos) egoitza soziala zuen beste bat ere, eta hori ez zela aldatu erosi zenean, sozietatea zein egungo administratzaileak (1. EROSLE JAUNA, 2. EROSLE JAUNA eta 4. EROSLE JAUNA) helbidea han inoiz izan ez badute ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Ez duela inolako ibilgeturik, eta egoitza soziala 3. HELBIDEAN, 3. UDALERRIAN (Bizkaia) dagoela, 1. ENPRESAREN lagapenean (IFZ -- --), hitzez bada ere, kontraturik gabe.

Helbide horretan, bere bulegoak, kontularitza, fakturazioa eta inprimaki fiskalak daudela; hau da, hemendik gauzatzen direla negozioaren zuzendaritza eta horren kudeaketa administratiboa.

LLLZZZZZZ eta ZZZZZZ erreferentziak dituzten ekintzen konstantzia-eginbideak; 2006ko 225 ereduen, 2007 eta 2010 ekitaldien arteko 220 ereduen eta 2006 eta 2010 arteko ekitaldietako (biak barne) 30 ereduen, eta 2011ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhileko 303 ereduaren fotokopiak eransten dira; guztiak Zerga Administrazioko Estatu Agentzian aurkeztuak. Gainera, hainbat fotokopia eransten dira: sozietatearen fundazioaren zein egungo kideek egindako erosketaren eskriturak, lursailaren erosketaren eta ondoko salmentaren eskriturak, eta ARABAKO Foru Aldundiaren ondare-eskualdatze zerga.

- 2012ko urtarrilaren 19ko eginbidean, honako hau adierazten da:

«Agente fiskal horri 4. UDALERRIAN (ARABA) kokatutako 1. LURSAILAREN erosketa- eta salmenta-eskriturak, ondare-eskualdatzeen inprimakiak eta dokumentatutako egintza juridikoak entregatzen zaizkiola, bai eta 2006ko ekitaldiari dagozkion sozietateen 225 ereduak eta BEZaren 390 ereduak ere».

- 2012ko urtarrilaren 23an, Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritza Zuzendariordetzak txostena egin zuen. Bertan, ondorioztatzen da, 2006ko otsailaren 6tik, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN dagoela (Bizkaia).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2012ko urtarrilaren 25ean, Bizkaiko Foru Ogasunak 1. ERAKUNDEAREN helbide-aldaketaren proposamena jakinarazi zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, 1. UDALERRIKO 1. HELBIDEKO aitortutako helbide fiskaletik (Burgos) 3. HELBIDERA, 3. UDALERRIAN (Bizkaia), 2006ko otsailaren 6tik aurrera eragina duela. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zion erantzun zehatzik eman proposamenari.

- Funtsean, aipatu berri den proposamenean, honako hau adierazten da:

Sozietatearen ordezkarien aldarrikapenen arabera, enpresa-jarduera Burgosen aitortutako egoitza sozialarekiko inolako loturarik gabe garatu dela.

Foru Ogasunak lortutako informazioaren arabera, erakundeak 2006tik garatutako jarduera 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN kokatutako lokaletik kudeatu da; izan ere, «han gauzatzen dira enpresaren kontularitza, fakturen igorpena, jasotako fakturen zainketa, bankuko dokumentazioa eta erakundearen zerga-betebeharren betearazpenari buruzko dokumentazioaren izapidetzea eta zainketa». Beste aldetik, jarraian, honako hau eranstean da: «egiaztatu da enpresaren izenean irekitako bankuko kontu bakarra 3. UDALERRIAN kokatutako 1. BANKUAREN sukurtsalari dagokiola»

Jarraian adierazi bezala, bost kideetako lauren eta hiru administratzaileen helbide fiskala erakundearen kudeaketa gauzatzen den tokian kokatzen da; ondorioz, «dirudienez, 1. ERAKUNDEARI buruzko erabaki garrantzitsu guztiak Bizkaiko lurraldean ere gauzatzen dira, Sozietatearen helbide eraginkor berean, hain zuzen ere».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2012ko urtarrilaren 27an, erakundeak 036 eredua aurkeztu zuen Bizkaiko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzan, helbidea 3. UDALERRIKO 3. HELBIDERA aldatzea eskatuz (Bizkaia).

- 2012ko martxoaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Orokorren txostena egiten da. Bertan adierazten da, helbidea aldatzeko proposamenari buruzko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erabakirik ez dagoenez, eta Ekonomia Itunaren 43. Artikuluaren bederatzigarren atalean aurreikusitako bi hilabeteko epea igarota, prozedurari ekingo zaiola, artikulua beraren seigarren atalean aurreikusitako moduan. Egun batzuk beranduago, zehazki, 2012ko apirilaren 17an, Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritza Zuzendaritzak txostena egin zuen, espedientea Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari igortzearen alde, ere bai.

- 2012ko apirilaren 27an, Bizkaiko Foru Ogasunak jakinarazi zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, 2012ko apirilaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordean gatazka aurkeztea adostu zuela.

- 2014ko uztailaren 21ean, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidea onartu zuen, eta 2014ko abuztuaren 29an Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zitzaion, hilabeteko epearekin, alegazioetarako. Horiek 2014ko urriaren 9an sartu ziren Arbitraje Batzordean.

3. Espedientea aldarrikatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak egin zituen Tributuen Koordinazioko eta Laguntzako zuzendariordearen 2014ko azaroaren 14ko idazkiaren bidez. Hori hurrengo egunean erregistratu zen, eta bere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

argudioak azaldu ziren bertan. Erakundeak ere alegazioak egin zituen 2014ko azaroaren 11n.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. 2012ko apirilaren 25ean erregistratutako gatazkaren azalpen-idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du:

- 2006ko otsailetik 2007ra, interesdunak garatutako jarduera ekonomikoa 4. UDALERRIAN (ARABA) kokatutako higiezinaren erosketa eta ondoko salmenta izan dela; erakundeko ordezkarien aldarrikapenen arabera, ondoren, gelditasun-aldia izan duela, bere jarduera finantza-jardueraren arlorantz zuzentzeko; eta jarduera guzti hori erakundeak 1. UDALERRIAN (Burgos) aitortutako egoitza sozialarekin inongo loturarik gabe garatu dela.

- Foru Ogasunak lortutako informazioaren arabera, erakundeak 2006ko otsailetik garatutako jarduera 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN kokatutako lokaletik kudeatu dela; izan ere, «han gauzatzen dira enpresaren kontularitza, fakturen igorpena, jasotako fakturen zainketa, bankuko dokumentazioa eta erakundearen zerga-betebeharren betearazpenari buruzko dokumentazioaren izapidetzea eta zainketa.

- Erakundearen kontu bakarra 3. UDALERRIAN kokatutako banku-erakundearen sukurtsalean irekita dagoela egiaztatu dela.

- Erakundearen zuzendaritza eraginkorra helbide fiskala Bizkaian duten hiru administratzaile solidariok osatutako administrazio-organoari dagokiola, erakundearen jabeekin batera. Bost kideetako lauren eta hiru administratzaileen helbide fiskala erakundearen kudeaketa gauzatzen den lurraldean dago.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- Dirudienez, 1. ERAKUNDEARI buruzko erabaki garrantzitsu guztiak Bizkaiko lurraldean hartzen direla eta, ondorioz, sozietatearen helbide eraginkorrean dagoela.

- Adierazitakoaren arabera, «1. ERAKUNDE (IFZ ---) zergapekoaren helbide fiskala Bizkaian dagoela, 3. UDALERRIKO 3. HELBIDEAN, 2006ko otsailetik, erakundearen egungo kideek horren partizipazio sozialen % 100 erosi zituztenetik; izan ere, bertan garatzen zen erakundearen kudeaketa eta bertan ere zentralizatzen zen enpresaren jardueraren zuzendaritza eraginkorra, egoitza soziala Burgosen izatea alde batera utzita».

2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundearen helbidea egiaztatzeko gauzatutako jardueretan, Burgoseko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzaren Kudeaketa Sailak 2012ko otsailaren 23ko txostena igorri du. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak hori ekarri du, alegazioen idazkiarekin batera. Alegazio horiek aipatutako txostenean oinarritzen dira, eta hori hurrengo ataletan egituratzen da:

a) Sozietateak aurkeztutako 2006ko urtarrilaren 24ko eta irailaren 22ko, 2008ko otsailaren 18ko, 25eko eta 27, eta 2009ko otsailaren 5eko 036 eredu-aitorpenak, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutakoak.

Aipatutako aitortzenen edukia anitza da: IFZren eskaera, kideen eta ordezkarien zerrenda, enpresa handi bezala kalifikatzeko eskaera, atxikipenen aldaketa, enpresa handiaren kalifikazioaren aldaketa, jadanik halakoa ez delako. Aitorpen guzti horietan, 1. UDALERRIA agertzen da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

helbide fiskal bezala, 1. EROSLE JAUNA sozietatearen administratzaileak sinatuta.

b) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren datu-basearen arabera, sozietatea alta emanda egon da etengabe Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, 2006an sortu zenetik eta 2012ko azaroaren 30era arte, Lursailen Higiezinaren Sustapena epigrafean, 1. UDALERRIAN kokatuta zegoela.

c) Sortu zenetik eta 2011ra arte, interesdunak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako hainbat zerga-kontzepturen inguruko hainbat aitorten (sozietateen gaineko zerga, informazio-aitortenak, etab.); horiek 1. UDALERRIA dute helbide fiskaltzat.

d) Ez du menpeko langilerik, eta profesional independenteak soilik ordaintzen ditu.

e) Ez du ibilgeturik, sortu zenetik.

f) 2007ko otsailaren 8an 1. SOZIETATEARI egindako salmenta-fakturan, 1. UDALERRIA agertzen da helbide bezala, eta helbide fiskal hori agertzen da egun berean betetako eskritura publikoan.

g) Enpresaren komunikazio ezberdinak Burgoseko Zerga Administrazioko Estatu Agentziako Ordezkaritzarekin; horietan, 1. UDALERRIA ere agertzen da helbide fiskal bezala.

h) 2. ENPRESAREN eta 1. ERAKUNDEAREN arteko konexio-datuak.

i) Erakundeari dagozkion inskripzioak jasotzen dituen eta 1. UDALERRIKOA helbidetzat duen Burgoseko probintziako merkataritza-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

erregistroko hainbat informazio, hala nola horren konstituzioari buruzkoa eta 2006 eta 2010 arteko urteko kontuen gordailuarena.

j) Beste organismo publiko batzuen aurrean aitortutako helbidea (Burgoseko Probintziako Diputazioa eta Burgoseko Merkataritza Ganbera), berriro ere, 1. UDALERRIKOA dena.

k) Burgoseko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzak egindako errekerimenduaren ondoren, 1. ERAKUNDEAREN gutuneria 1. UDALERRIAN ere kokatutako eta horri lotutako beste enpresa bati entregatzen zaiola adierazten duen posta-zerbitzuaren informazioa.

3. Esan berri dena zein adierazpen horiek sostengatzen dituzten dokumentu ezberdinak kontuan izanda, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dio:

a) Enpresaren jardura ekonomikoa Burgoseko probintzian aitortutako helbide fiskaletik gauzatzen dela, jardueraren gauzapean gailu administratibo txikia besterik behar ez zuela adierazita; ondorioz, logikoa da pentsatzea erakundeak aitortutako egoitza sozialean eta fiskalean gauzatu dela.

b) Kontzeptu bateratu bezala, 1. ERAKUNDEAREN «kudeaketa administratiboko eta zuzendaritza eraginkorreko» funtzio gehienak lurralde erkidean kokatzen direla, funtzio txikiago jakin batzuk foru-lurraldean garatzea kaltetu gabe.

c) Ez dela frogatu kudeaketa-funtzioak 3. UDALERRIAN kokatutako lokaletik gauzatu izana; izan ere, ez da frogatu 1. ERAKUNDEA S.L. erakundearen eta higiezinaren titularraren den 1. ENPRESAREN arteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

lagapenerako kontratuzko harremanik dagoenik. Ez sozietate batek ez besteak ez dute inolako zenbatekorik adierazi hirugarren pertsonekin izandako eragiketen 347 ereduan, ez eta hiri-errentamenduen 180 ereduan ere, 2006 geroztik.

d) Helbidea aldatzeko espedientea sozietateak berak bultzatzen duela. Hori Zerga Kudeaketako Sailak 2007ko eta 2009ko ekitaldien arteko sozietateen gaineko zergaren likidazio handiak eskatu ondoren gertatzen da, «ordura arte, Administrazioak gauzatutako jardueratan (2007ko, 2008ko eta 2009ko sozietaten gaineko zergaren likidazio-proposamenei egindako alegazioak barne) aitortutako helbide fiskala gaizki zegoela inoiz adieraz gabe. Eskaera hori 2006/02/06tik eta 2012/02/18an egoitza soziala aldatu arteko bere ekintza guztien aurka doan erakunde interesdunaren berezko ekintza da soilik».

4. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak egindako alegazioei erantzuteko, erakundeak hainbat gauza argudiatzen ditu. Lehenak aipatzen du foru-lurraldean kokatzen dela erakundearen ibilgetuaren baliorik handiena. Alde horretatik, aipatzekoa da, Ekonomia Itunaren 43.Lau b) artikulua araber, Euskadin helbide fiskala duten pertsonatzat joko direla «Euskadin euren egoitza soziala duten Sozietate Zerga ordaintzen duten pertsona juridikoak eta gainontzeko erakundeak, betiere, horien negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizatuta dagoenean. Bestela gertatuz gero, aipatutako kudeaketa edo zuzendaritza Euskadin gauzatzen denean. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan». Horrek esan nahi du, ibilgetuaren inguruko irizpidea subsidiarioa dela. Ezin da horra jo, gaia beste irizpide batzuen aplikazioaren bidez konpondu bada dagoeneko (urte eztabaidagarri guztietan ibilgeturik zegoen ala ez alde batera utzita). Hori da oraingoan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

gertatutakoa; izan ere, interesdunak gainontzeko alegazioak geroago adierazi baditu ere, aurretik azertu behar dira.

Analisi hori ikusita, ez gatoz bat interesdunaren tesiarekin. Besteak beste, 1. ERAKUNDEAK argudiatzen du, berak igorritako fakturretan lurralde erkidekoa helbide fiskaltzat agertzeak, eta ez 3. UDALERRIKOAK, ez duela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren tesiaren aldeko ondoriorik ematen; izan ere, argi dago hori agertu behar dela, hasieran aitortutako helbide fiskalaren aldaketa onartzen ez den bitartean; Burgoseko merkataritza-erregistroan kontuak gordetzeak ez duela Zerga Administrazioko Estatu Agentzian eman nahi dion garrantzia, erregistroarekin zerikusia duten betebeharrak egoitza sozialaren arabekoak baitira, eta ez helbide fiskalaren arabekoak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak helbide horretara bidali zituela jakinarazpenak. Bere tesiaren alde eransten du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jakinarazpen ezberdinak bidali dituela enpresaren 3. UDALERRIKO helbidera edo, hobe esanda, 2. UDALERRIAN (Bizkaia) kokatutako 1. ERAKUNDEAREN administratzaileen helbide fiskalera (1. EROSLE JAUNA, 2. HELBIDEAN bizi dena, eta 2. EROSLE JAUNA, 4. HELBIDEAN bizi dena). Berez, datu horiek ez dira erabakigarriak; izan ere, data beretan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. HELBIDERA bidalitako zenbait jakinarazpen agertzen dira. Halaber, 2012ko otsailaren 16ko Burgoseko Merkataritza eta Industria Ganberaren ziurtagiria agertzen da. Bertan, erakundeari igorritako kuotak agertzen dira. Horrek 2006/02/06an egin zuen alta, Ekonomia-jardueren gaineko Zergari dagokion epigrafean, 1. HELBIDEAREKIN, eta 2011ko abenduaren 30ean egin zuen baja. Halaber, 5. UDALERRIKO (Burgos) Posta Bulegoak emandako ziurtagiria dago, 1. ERAKUNDEAREN gutunak 1. HELBIDEAN kokatutako 2. ENPRESARI emateko argibideen ingurukoa.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

5. Espedientean agertzen diren datuen baterako balorazioa eginda, ondorioztatzen dugu kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza eraginkorra lurralde erkidean garatzen direla, eta ez foru-lurraldean. Erakundearen jarrera berak ondorio hori berresten du. Arbitraje Batzordeak helbide-aldaketaren berri izateko bere adierazpena Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergapekoaren egiaztapen mugatuko hiru prozedura hasi ondoren gertatzen da; are gehiago, 2011ko azaroaren 30ean, interesdunak berak idazkia aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean, bere helbide fiskala aldatzea eskatuz, emandako epean alegazioak aurkeztu ondoren, bai eta ondoko behin-behineko likidazioak telematikoki jakinarazi ondoren ere. 2011ko azaroaren 30aren aurretik, autoetan ez da agertzen inolako eragozpenik 1. UDALERRIKOA helbide fiskaltzat jotzeko. Eta hori gutxi balitz bezala, 2012ko urtarrilaren 27an, erakundeak 036 eredua aurkeztu zuen Bizkaiko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzan, helbidea 3. UDALERRIKO 3. HELBIDERA aldatzea eskatuz (Bizkaia). 2012ko otsailaren 23ko Zerga Administrazioko Estatu Agentzian txostenak 1. ERAKUNDEAK Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin, eta ez BFArekin, izan nahi duela harreman fiskala adierazten duten aitortpenen, jakinarazpenen eta bestelakoen zerrenda luzea jasotzen du. Alde horretatik, esanguratsua da, 2009ko azaroaren 26an, interesdunak Burgoseko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Diru-bilketako Eskualde Sailari 4. ZENBATEKOA euroko zor jakin batzuen atzerapena/zatikapena eskatzea. Eskaera hori 2010eko urtarrilaren 25ean ukatu zitzaion, eta 1. EROSLE JAUNAREN 2. UDALERRIKO 2. HELBIDEAN (Bizkaia) jakinarazi zitzaion. 1. ERAKUNDEAREN administratzailea den 4. EROSLE JAUNAK sinatutako eskaeraren idazpuruan adierazten da horren ordezkari gisa jarduten duela, eta Burgosen duela helbidea. Beraz, bere jokabidearen arabera, onartzen du bere helbide fiskala lurralde erkidean dagoela eta ez foru-lurraldean, helbidearen aitortpenean ustezko akatsa dagoela frogatu gabe, aurkakoa adierazten duten hainbat jarduera direla eta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

6. Arbitraje Batzorde honen 18/2010 espedientea duen abenduaren 27ko 19/2012 Ebazpenaren aurkako errekurtsoren kasuan (hori 2. ERAKUNDEAREN helbideari buruzkoa da, eta antza handia du gatazka honekin interesdunen jokabideari dagokionez, seguruenik, hainbat kide eta administratzaile berdinak direlako), 2014ko uztailaren 11ko Epaian, Auzitegi Gorenak honako hau argudiatzen du:

«Kasu hau bitxia da; izan ere, errekurtsogileak aurkeztutako seinale guztiek bere nahia berresten dutela badirudi ere, ezin da ahaztu egoitza soziala lurralde erkidean ezarri zela sortu zenetik, eskritura Bilbon eman bazen ere, eta errekurtsogileak Burgosen aitortutako helbide fiskalaren arabera jardun izan zuela beti; izan ere, 2004ko urriaren 22an, Burgoseko Ogasun Ordezkaritzan aurkeztu zuen IFZren behin-behineko eskaeraren 036 eredua, bertan, 1. UDALERRIKO 1. HELBIDEA (Burgos) adierazita helbide fiskal gisa. Halaber, 2004ko azaroaren 8an, behin betiko eskaera aurkeztu zuen helbide berarekin, eta horixe mantendu zuen 2006ko otsailaren 3an, sozietateak zentsu-aitorpena Euskadiko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Berezian aurkeztu zuenean, higiezinaren sustapeneko euren jardueraren hasiera 2004ko urriaren 7tik aurrera eta bere jarduera ekonomikoa nagusiki 1. UDALERRIAN garatzen zela jakinarazita. Egoera horretan, hainbat urtez jarduerak eta aitortenak Estatuko Ogasunaren aurrean errepikatuta eta izendatutako helbide fiskala eztabaidatu gabe, errekurtsogilearen jokabideak berak inpugnatutako ebazpena berrestera behartzen du, batez ere, onartzen denean 3. UDALERRIKO lokala ere ez dela errekurtsogilearena, baizik eta 3. SOZIETATEARENA. Gainera, ez dago, sozietatea sortu zenetik, 2. SOZIETATEAREKIKO lagapena islatzen duen dokumenturik; beraz, enpresaren alta adierazi behar da Ekonomia-jardueren gaineko Zergan, bere kokapena 1. UDALERRIAN ezarrita».

(Laugarren Oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2012	R7/2015	2015-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Ez dago inolako arrazoirik gatazka honetan ondorio bera ez ateratzeko

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- BFAk nahi duen 1. ERAKUNDEAREN helbide-aldaketaren atzeraeragina ez dela egokia; izan ere, 2006ko otsailaren 6tik, gutxienez, erakundea 1. UDALERRIKO 1. HELBIDEAN egon da kokatuta (Burgos).

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.